

Droga

Drogazaleen adina hamalau urtera jaitsi da Euskal Herrian

Gaur Drogaren aurkako Nazioarteko Borroka Eguna da munduan

Drogazaleen adina hamalau hamabost urtera jaitsi da azken urteetan Euskal Herrian. Euskal Herriko erakunde gehienak bat datoz droga kontsumoa mantendu egin dela adierazterakoan. Gaur Drogaren aurkako Nazioarteko Borroka Eguna ospatuko dute.

G.A. / BILBO



Populazioa drogen kalteaz ohartez da gaurko egunaren xedea.

«Droga munduak, mundu ezezaguna da eta erakarri egiten zaitu, errealtateaz nardatuta sentitzen zara eta drogak hemendik alde egiteko aukera eskaintzen dizu. Probatu egiten duzu eta nahigabe sartzen zara eta hasieran ondo sentitzen zara baina, gero zulo beltz batean sartu zarela konturatu arte, ezin bait duzu drogarik gabe bizi. Askorentzat itzulerarik gabeko bidaia da eta beste batzuek barrena hustu eta zulo horretatik irteera lortu dugu», adierazi zion EGUNKARIARI azken sei hilabeteotan droga probatu gabe daramatzan drogazale ohi batek.

Euskal Herrian drogaren munduan lan egiten duten erakundeek ez dute legezko eta legez kanpoko drogen banaketarik onartzen. «Drogak, menpekotasuna sortzen duten guztia dira, alkohola, tabakoa, ludopatia...».azpimarratu dute talde horiek.

Euskal Herriko drogazaleen ereduari dagokionez, gehienak gizo-

nezkoak dira, % 77 gutxi gorabehera. Ezkongabea % 85, seme-alabarik gabea eta haietako asko ere langabezian daude. Ikasketei dagokionez, drogazaleen % 50ek ez dute eskola graduaziorik eta azkenik, batez besteko adina 25-26 urteen artekoa da.


Kontsumitutako drogari buruz, tokian tokiko desberdina da. Hala ere, oro har, legezko drogak diren alkohola eta tabakoa dira kontsumitzen direnak. «Gizartea oraindik ez dago kontzientziaturik alkohola eta tabakoa droga direnik». Alkoholari dagokionez, Hego Euskal Herrian alkoholaren kontsumoa asko areagotzen da asteburu eta jai egunetan, gazteen artean bereziki.

DROGA, GAIXOTASUN SOZIALA Euskal Autonomi Elkartean (EAE), hamabost eta hogeitabederatzi urteko gazteen artean

«legez kanpoko» drogak deiturikoen artean haschis-a da gehien kontsumitzen den droga, ondoren anfetaminak eta jarraian kokaina. Nafarroan eredu antzekoa da ñabardura batekin. Drogamenpekotasuna dela medio tratamenduetan izan diren drogazale gehienak heroína edo alkohol kontsumitzaileek zirela, 1990. urtean % 50 eta % 42,4.

Euskal Herriko erakundeak bat datoz drogamenpekotasuna «gaixotasun soziala» dela adieraztean, eta zentzu horretan erakunde publikoak duten papera azpimarratu dute, «tokian tokiko ezaugarrien arabera, udaletxeek bitartekoak eskaini behar dituzte. Hala ere, guztien arteko lana ezinbestekoa» da. Ildo horretatik, azpimarragarria da Euskal Herriko elkarte terapeutikoetan azken urte hauetan tratatuak izan diren drogazaleen kopurua areagotu egin dela.

niarako bidea hartu arte. Untziaren inguruan boiak jartzeaz gain, «hondakin toxikoak, egiten dituenarentzat» irakur zitekeen pankarta zabaldu zuten «Baltica» untzian. Sortu diren tirabirak direla eta, «untziak Europako Elkartearen arautegia betetzen du», eta zama lurreratzeko debekurik ez diola ezarriko adierazi du Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Saileko kontseilarioordeak. Bitartean, hondakinak lurreratu edo ez, Ministeritzaren erabakiaren zain dago untzia.



HONDAKIN toxikoak dakartzan

untziari Bilboko kaiako sarrera oztopatzen ari zaio Greenpeace talde ekologista astelehenaz geroztik. Boiak jarri dituzte untziaren inguruan «MV Greenpeace» untziko gizonak. 1.500 tona hondakin toxikoz osaturiko zama darama «Baltica» untziak. Hondakin toxikoak Alemania eta Suediatik ekarriak dira, eta Greenpeacekoek esan dutenez, «Baltica»-ri sarrera oztopatzen jarraituko dute, untziak Alema-

Euskara

Donostia euskalduntze aldera ihardunaldiak bihar eta etzi

A.O. / DONOSTIA

Donostia eskalduntzeko ihardunaldiak izango dira ostegunean eta ostiralean. Ihardunaldien helburua Donostia euskaldun bihurtzea da.

Ehun euskaltzale inguru batzarrean bildu ziren otsailean. Donostiako euskaltzaleak biltzea zen batzarren xedea, Donostian euskaraz bizi ahal izateko ekin-tzak antolatzeko.

Batzar honetatik Talde Eragileak sortu zen eta azken hilabeteotan Erakundearen txostena landu dute. Hogeitabost bat kidek osatzen dute multzoa. Erakundeak ez du oraindik izenik, baina berehalakoan jartzeko asmoa dutela esan zuten Talde Eragileko kideek, atzo Donostian egindako pre-

tsaurrekoan. «Euskaltzaleen topagune modura, eta aldi berean egitasmo honen berri emateko eta lehen solasaldia egiteko» antolatu dituztela Ihardunaldiak adierazi zuten Talde Eragileko kideek.

Antolatu duten egitarauaren barne, bihar osteguna hitzaldia izango da Donostiako Peña-florida institutuan. «Euskara gaur Donostian eta Arrasateko Arrasate Euskaldundu Dezagun-en (AED) esperientzia» da hitzaldiaren izenburua, eta hitzegingo dutenak I. Larrañaga (Siadeco) eta J.M. Mujika (AED). Ostiralean Talde Eragileak landuriko txostenaren aurkezpena da.

Etzi ere, euskaltzaleen afaria izango da eta bertsolari, trikitilari eta abeslariak arituko dira giroa alaitze aldera.

Kanboko auzapezak trabak ezarri ditu ikastola herrian atxikitzeko

J.L. / BAIONA



Kanboko ama-ikastola gelarik gabe gerta liteke heldu den ikasturtea sartzean. Horretarako irakasle, guraso eta laguntzaileek deitu dute manifestazio batera larunbat honetan arratsaldeko 4etan. Kirol zelaitik abiatuko da Herriko etxe aintzinerara joateko.

Herriarena den egoitza batean dago ama-ikastola 15 urte hauetan eta joan zen maiatzaren 17an Duhart auzapezak jakin erazi zien egoitza ez sanao izanez uda honetan deseginaraziko zuela beste gela proposamenik egin gabe.

Ordutegiz geroztik ama-ikastola eta herriko auzapezaren artean solasaldi andana bat izan dira, oraindik konponbiderik eman ez badute ere.

Ikastolako arduradunek garbi erakutsi dute Kanbon nahi dituztela eduki beren gelak. Auzapezak egin

dien lehen proposamena izan da duela 22 urte eraikiak diren bi prefabrikaturen eskaintzea, baina ikastolaren gain dago horien desegitea tokiz aldatzeko eta berriz montatzeko beste toki batean.

Ikastolakoek proposamena baka-rrik onartzen dute prefabrikatuak diren tokian utziz behin behineko egonaldi batentzat, herriak behin betiko gelak eman arte. Beste proposamena auzapezak zeharka egin dietena izan da Kanbo eta Itsasu artean den Halsueta industrialdean ikastolaren kokatzea. Proposamen hori ikastolako arduradunek ez dute erabat onartzen.

Beren egoeraren salatze eta herriko jendeen informatzeko ama-ikastolako arduradunek gutun bana bidali die hautetsiei eta izen biltze kanpaina bati ekin. Sostengu komite bat ere sortu da ama-ikastolaren alde Kanbon eduki ditzan gelak.



HIRU FILMA EUSKARAZ

Ekainak 26
Arratsaldeko 17.30ean
Aita Salestarren aretoan

OLIVER TWIST
Marrazki bizidunak